

Oinez eta Txutxu trenean jende askok egin zuen tranbia zaharraren ibilbidea atzo

■ Helduak, gazteak eta umeak aritu ziren ibilbidea egiten ■ Lau elkartetan hamaiketako eman zuten eta jendeak eskertu zuen pintxoak edo freskagarri bat hartzeko aukera, bero izugarria zen izan ere ■ Salletarrak elkartean bazkaria egin zuten antolatzaileek eta tranbiako langile izandakoek.

ATZO bete ziren 100 urte tranbia zaharra martxan jarri zela eta egun osoan zehar izan zen ibilbidea egiteko aukera. Hernanin eta Donostian tikeak seilatu zizkieten ibilbidea egin zutenei eta eguerdi parterako 100 lagunetik gora ziren tranbia zaharraren bidea egin zutenak. Gehienek oinez egin zuten ibilbidea, baina, Txutxu trenean egin zutenak ere baziren. Hernanitik Donostiako Peñaflozdaraino zen tranbiaren ibilbidea, Astigarragatik Martutene eta Loiolan barrera. Hernaniko Txantxangorri elkartean, Astigarragako Gure Izarran, Martuteneko Txapelaundin eta Loiolako Salletarraen jatekoa eta edaria eman zieten ibilbidea egitera animatu zirenei eta jendeak gusto haundiz hartu zuen biderako indar pixka bat.

Bazkaria Salletarrak elkartean

Tranbia zaharrean lanean aritutako zazpi lagun lokalizatu dituzte festa guzti honen antolatzaileek: Manuel Borja Prantxesa, Luis Zumeaga, Antonio Zapirain, Lorenzo Almandoz, Jesus Arregi, Jose Astarbe, Juanito Egurza, Vicente Pla eta Patxi Urbizu. Antolatzaileen hitzetan ez da erraza denak bilatzea, ahoz aho jaso behar izan baitute informazio hau paper zehatzik ez dagoenez. Zazpi hauetatik bost elkartu ziren Salletarrak elkartean jarri zieten bazkaria. Antolatzaileak, elkartetako jendea eta Hernani eta Astigarragako Udal ordezkariak ere izan ziren bazkarian eta tranbia zaharraren gaineko makina bat kontu entzuteko aukera izan zen.

“Jende asko ibiltzen zen”

Tranbian lanean aritutakoek hango kontuak ederki gogoratzen dituzte. “Jende asko ibiltzen zen, Donostiara merkatura gauzak saltzera,



Tijero eta Mendiburu Tren Txutxuarekin aterako abisua emateko pronto, atzo, Urbieta kalean.

La Salleko eskolara gazte jendea eta Tilosetako bailera ere jende asko etortzen zen tranbian” esan diote Kronikari. Ordu hartako prezioak ere gogoan dituzte: “65 zentimo izaten zen, Hernanitik Donostiara joan eta etorri; Donostiatik Martutenera 35 zentimo eta Astigarragara 55. Floridatik Hernanira, berriz, 15 zentimo”. Tranbia zergatik bukatu zen ez dago oso garbi eta bakoitzak bere teoria du: asko aberiatzen zela, jende askok ez zuela ordaintzen, Donostiako Udalarari ez zitzaizela interesatzen eta abar.

Denak bazkalondo batean ezin esanda beste egun baterako zita egin dugu Tranbian lanean aritu zirenekin, garai hartako kontu gehiago jakiteko. □



Tranbian lanean aritutako bost lagun, Salletarrak elkartean, atzo, bazkalondoan.

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani

www.kronika.net
HERNANIKO
kronika
Interneten helbide berrian

ARALAR
TABERNA
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

Arandegia
Mari Fe
Nagusia 36 Orkolaga 17
943 550 489 943 552 741
HERNANI

HERNANI TABERNA
Tilosetako
taberna berria
- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak
Terraza, telebista,...
HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -
943 55 44 76 - HERNANI



Lizeaga kaleko espaloiak alde ederreko zabaleroa eta patxada hartu du.

Lizeaga kaleko espaloia zabaldu egin dute, bideari puska kenduta

■ Espaloiak 1,90 metro ditu orain eta lehen metro inguru zuen ■ Kotxeentzat lehen hainaxe toki dago aparkatzeko eta bideak 3 metro inguruko zabaleroa du orain.

LIZEAGA kaleko espaloia zabaltzeko obrak bukatu dituzte. Orain artean, metro inguruko zabaleroa zuen espaloiak eta zenbait lekutan 80 zentimetro inguru ere bai. Kanean gora eta behera dabilen jendearentzat nahiko komeria izaten zen bi lagun pasatzeko, karroa

eramateko eta abar eta jende asko bidetik joaten zen espaloitik beharrean.

Erremedioa jartzeko, zabaltzeko lanak atera ditu Udalak eta bukatu berri dituzte. Orain, lehengoak halako bi bada espaloia zabalean, gutxi gora behera.

Bideari pusketa kendu diote espaloia zabaldu ahal izateko, baina, oraindik ere 3 metro zabaleko bidea badago kotxeak pasatzeko. Aparkaleku kopurua ere ez da aldatu, oraindik ere bidearen bi alde-tara utzi bailiteke kotxea. □



Jubilatu etxeko bailean jendea erruz biltzen da.

Jubilatu Etxeko taberna itxita egongo da abuztuaren 25etik irailaren 2ra

JUBILATU etxeko taberna itxita egongo da hilaren 25etik irailaren 2ra, tabernariak oporrak hartuko dituelako. Honenbestez, abuztuaren 31n ez da bailerik izango igandea izan arren eta irailera itxaron beharko dute Jubilatu etxean dantza egiteko gogoz daudenek. Jubilatu etxean igandero izaten da dantza eta normalean jendez gainezka egoten da egoitza egun horrekin. □

Mendiriz Mendiko bulegoa ostegunetan irekiko dute abuztuan

MENDIRIZ Mendiko bulegoak ordutegi berezia izango du abuztuan. Normalean astelehen, ostegun eta ostiraletan irekitzen dute bulegoa, baina, abuztuan astean egun bakarrean egongo da irekita, oste-

gunetan. Ordutegia arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara da. Bestalde, federatzeko lizentziak abuztuan ez dira tramitatuko, federazioa itxita dagoelako, abuztuko oporrak direla-eta. □

ETXERAT ELKARTEA

Hondartzetan enkartelada gaur Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko

ETXERAT elkarteak enkarteladak deitu ditu Euskal Herriko hondartzetan *Euskal Presoak Euskal Herrira orain* lemarekin. Hernani inguru-koak Orioko hondartzan elkartuko dira eta zita 12:00etan

autopistako zubi azpian egin dute. Hernanitik Oriora joateko zita, berriz, Atsegindegian egin dute, gaur, goizeko 11:00etan. Etxeretek dei egin die hernaniarrei gaurko enkarteladan parte hartzera. □



Raquel eta Edurnek ireki dute denda berria.

'Aran' dekorazio eta opari denda berria ireki dute Elkano kalean

■ Denetik aurkitu daiteke, baina produktu "bereziak dira".

ARAN denda berria ireki dute Elkano kalean, Antziola kalearekin bat egiten duen horretan. Dekoraziorako eta oparitarako produktuak daude: koadro, joiero, pitxi, telefono zahar, ispilu, pelutxe (Disney eta Warnerrekoak asko), kosturero, katiluak, binagrera, lorontzi, lore artifizial eta zentroak, ordulariak, aterkiak eta abar

luze bat. Edurne Campos eta Raquel Fuente dira dendariak eta beren hitzetan "produktu berezi xamarrak" dira denak.

Ostiralean inauguratu zuten denda eta dagoeneko mugimendua hasi da Raquel eta Edurnek esan digutenez. Ordutegia: astelehenetik larunbatera (larunbata barne), 09:30-13:30 eta 17:00-20:00. □

Katalin Goya Zubiri

Ostiralean hil zen Caceresen 88 urte zituela

Bere senar Angel Garciak, seme Manuel eta Jabier eta senitarteko guztiek ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere alde eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Meza **asteazkenean**, arratsaldeko zazpitan,

Juan Bataiatzailea Parrokian

Hernanin, 2003ko Abuztuaren 3an.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ▶Gauetz: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077